

# Kulturgintza

## Porruako euskalduna

Porruan (Asturies) Museo Etnografikoan bisita amaitzen ari ginen, alde egin aurretik harreran salgai zeuzkaten liburu eta diskoei begira. Erreparatu nion aulkian eserita zegoen gizonezko adinekoari. Zimela, bisera buruan, kontraste apur bat egiten zuen museoaren larrekotasunarekin, eta aldi berean antzematen zen etxean zegoela.

ELIXABETE GARMENDIA

– ¿De dónde vienen ustedes?

– Pues del País Vasco.

– Euskaldunak! Zer moduz?! –eta hortik aurrera euskaraz bota zuen parrafada, sorpresak gogoan hartzen utzi ez zidana.

Luis Manuel Romano Haces, 85 urte, Mexikon “*en la mera capital*” jaioa, familia indianokoa, Porruan beste asko bezala. Euskara non ikasi zuen? Ba, Comillasen, ikaskide euskaldunekin, eta burmuineko artxibotik hasi zen izenak ateratzen: Rekondo donostiarra, Forcada Odriozola Tolosakoa, beste bat gernikarra –Jaiogigarren abizena–, Nebreda –Algortako familia handiki batekoa–, Mendia Etxaniz, Zumarraga edo Urretxukoa... Eta memoriak egin ohi dituen lotura horiekin, hasten da kantatzen “Zibilak esan naute/biziro egoki...”. Mendia hark Iparragirren kanta guztiak zekartzan liburutxo bat oparitu omen zion. Segidan “Ara nun diran, mendi maiteak...” eta pasartearen bukaerara iristean dio bi bertsiore zuek, bata “Ara España” zioena eta bestea “Ara Euskalerrri”. Berrero memoriak beste salto bat eta *Gernikako Arbola* eta *Eusko Gudariak* kantatu ditu elkarren segidan, abertzaleen mitin bati azken puntua jartzen balebil bezala.

Gerra oste bete-betea izan eta euskara galazarita omen zegoen Comillaseko seminarioan. Errebelde tankera du gizonak eta horrek erakarriko zuen hizkuntza debekatura. Horrek eta hizkuntzekiko erraztasun eta zaletasun izugarriak. Lanbidez alemanetik gaztelaniarako itzultzaile izan da 30 urte pasatxotan, Bartzelonan. Ehundik gora liburu omen dauzka itzultzaile. Gaiak, zuzenbidea eta matematika ez beste guztiak. Interneten ageri dira haren itzulpenetako batzuen aipamenak, tartean Alma Mahle-

**Luis Manuel Romano Haces, 85 urte, Mexikon “en la mera capital” jaioa, familia indianokoa, Porruan beste asko bezala. Euskara non ikasi zuen? Ba, Comillasen, ikaskide euskaldunekin, eta burmuineko artxibotik hasi zen izenak ateratzen**



laz Asturiesko Porrua herria Europako Kultur Herria izan zen, eta hainbat ekitaldi antolatutako zituzten ospatzeko; *merchandisinga* ez zen faltatu, goiko kamisetak erakusten duenez.

ri buruzko bi, autobiografia bata eta *La novia del viento* bestea.

Zenbat hizkuntza ote dakizkien, ezin kontu garbirik atera: Comillaseko latina eta grekoaz aparte, bablea ez duela sekula benetan hartu, katalana menderatzen ez zela iritsi... Ahoskeran nabari zaio ingelesez ondo mintzatuko dela eta errusiera eta hebraiera behintzat lardatzen bide ditu, Ameriketarako itsasbidaia eta egonaldietan ezagututako judutarrei esker. Mexiko hiriburuan, osaba batek zeukan kantinan zerbitzari ibili zen 1950eko hamarkadan. “Kantina ederra oso, Mexikoko onenetarikoa, Antzokitik hurbil, handik pasatzen ziren artista eta musika-riak *a tomar*...”.

*Etcétera*ekin bukatzen ditu esaldiak sarritan, hitzak bizkor jaulki arren ideiak are azkarrago datozkiolako. Comillaseko garaian germanofiloa, anarkista alemanen kanta bilduma bat egin dauka, eta erlijioan, “ateoa ez, agnostikoa ere ez, panteista naiz”. *Aita gurea* eta *Agur Maria* bizkaieraz errezitatzen ditu.

Mende eta erdi kalkulatzeko Erardt piano desafinatuak ez dio uzten notak behar bezala ematen, baina lotzen ditu *potpourri* gisa *Ama begira zazu*, *Akerra ikusi degu* eta *Boga boga*; “ez det nik ikusiko”ra iristean “zeinen tristeal!” dio, begiak bustita. Bere alaba Elgak, Alemanian bizi baita, “gaztainen kanta hori” (*Ator, ator*) gogoratzen du herrimakin erasaten dionean.

PD. Porrua, Llanesetik lau kilometrora, 400 biztanle, Europako Kultur Herria izan zen iaz. Herriaz eta museoaz [www.porrua.net](http://www.porrua.net). Luis Romanoren senitartekoen emaitza dira museo-ko etxe eta lurak. ■